

EPE EGONKORTZE UNITATE DIDAKTIKOAK BIGARREN HEZKUNTZA



STEILAS 2024

DEIALDIAK ZER DIO?

B.1. Zati honen xedea izanen da egiaztatzea izangaiak badituela irakaskuntzan jarduteko gaitasun pedagogikoak eta menperatzen dituela irakaskuntzarako behar diren teknikak. Izangaiak lortu nahi duen espezialitateari lotutako unitate didaktiko bat prestatu, aurkeztu, azaldu eta defendatu beharko du. Izangaiak hautatuko du unitate didaktikoaren edukia. Prestatu beharreko unitate didaktiko horretan, alderdi hauek zehaztuko dira: **lortu nahi diren ikaskuntza helburuak, edukiak, ikasgelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak eta, azkenik, ebaluazio prozedurak.**

Unitate didaktikoak **Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko bat hartu beharko du testuinguru gisa**, eta honako alderdi hauek zehaztuko dira hartan: unitate horrekin lortu nahi diren ikaskuntza helburuak, edukiak, ikasgelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak eta ebaluazio prozedurak, hori guztia ebazpen honen V. eranskinean azaldutako balorazio irizpideekin bat.

DEIALDIAK ZER DIO?

Probaren zati honen prestaketa, aurkezpena, azalpena eta defentsa ahozkoak izanen dira, eta honela egingen da:

a) Izangaiek epaimahaiaren aurrean aurkeztu, azaldu eta defendatu beharko dute unitate didaktikoa, eta hori prestatzeko, aurrez, 20 minutu izanen dituzte.

b) Ondoren, 45 minutu izanen dituzte unitate didaktikoa epaimahaiaren aurrean ahoz aurkeztu, azaldu eta defendatzeko.

Unitate didaktikoa prestatu, azaldu eta defendatzeko, izangaiek egoki jotzen duten material osagarria erabiltzen ahalko dute, eta haiek eraman beharko dute material hori. Halaber, unitate didaktikoaren azalpenean eta defentsan, gidoi bat erabiltzen ahalko dute, gehienez ere bi orrialdekoa; azalpena amaitutakoan, epaimahaiari eman beharko diote.

c) Epaimahaiaren aurreko ahozko azalpena bukatutakoan, epaimahaiak beharrezko jotzen dituen auzi edo galderak planteatzen ahalko dizkio izangaiari, unitate didaktikoari eta izangaiek azaldutako edukiei loturik, betiere; eztabaida hori 15 minutukoa izanen da gehienez.

DEIALDIAK ZER DIO?

Lanbide Heziketaren berezko espezialitateetan, bai Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoetan, bai Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegokoetan, unitate didaktikoa lan unitateei buruzkoa izaten ahalko da, eta ikaskuntza emaitzekin lotuta egon beharko du, bai eta kasuan kasuko profil profesionaleko kompetentzia unitateei dagozkien amaierako gaitasunekin ere, hala badagokio.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Hezkuntza Orientazioko espezialitateetan, eta Komunitatearentzako Zerbitzuetakoan, izangaiek, aukeran, ikastetxe batean esku hartzeko programa bat garatzen ahalko dute, hezkuntza orientazioko eta orientazio psikopedagogikoko lantalde batean, eskolako zerbitzu psikopedagogikoetan eta eskolako kabinete psikopedagogikoetan.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

B zatia.

B1 ariketa.

-Alderdi orokorrak:

- Unitate didaktikoa justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.
- Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.
- Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Helburuak, edukiak eta metodologia:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko unitate didaktikoaren kasuan:
 - Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira: ikaskuntza helburuak, kompetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), oinarrizko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio irizpideak, ikaskuntza egoerak eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, irteera-profila.
 - Zehaztu da zer-nolako lotura duten oinarrizko jakintzek kompetentzia funtsezkoak eta espezifikoak garatzeari begira, bai eta kompetentziek deskriptore operatiboekin duten lotura ere.
 - Metodo pedagogikoak bat datoz ikasleen ezaugarriekin.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- Lanbide Heziketarako unitate didaktikoaren kasuan:
 - Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira, bai zikloaren konpetentzia orokorraren esparruan, bai gaitasun profesionalen, pertsonalen eta sozialen esparruan: helburu orokorrak, ikaskuntzaren emaitzak/amaierako gaitasunak, edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak eta ebaluatzeko jarduerak eta tresnak.
 - Zehaztu da zer-nolako lotura duten ebaluatzeko jarduerak eta tresnek ebaluazio irizpideekin eta kasuan kasuko ikaskuntzaren emaitzarekin.
 - Proposatutako metodologia berritzailea da eta bat dator hezkuntza-mailarekin.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- Araubide bereziko kirol irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira, bai helburu orokorren esparruan, bai tituluaren profil profesionalaren berezko gaitasunei dagokienez: helburu orokorrak, kirol irakaskuntzako moduluaren helburuak, edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak eta ebaluatzekeo jarduerak eta tresnak.
 - Zehaztu da zer-nolako lotura duten ebaluatzekeo jarduerak eta tresnek ebaluazio irizpideekin eta kasuan kasuko kirol irakaskuntzako moduluari dagozkion helburuekin.
 - Proposatutako metodologia berritzailea da eta bat dator hezkuntza-mailarekin.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- Musikako goi mailako irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Haien osagaiak (helburuak, edukiak, metodologia) ongi planteatuta daude eta elkarren
 - artean koherenteak dira, eta zehaztu da zer lotura dagoen espezialitateko kompetentzia orokorren, zeharkakoen eta espezifikoaren garapenarekin.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira, zikloaren helburu orokorren eta zikloaren berezko gaitasun profesionalen esparruan: helburu orokorrak, prestakuntza moduluaren helburuak, edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak eta ebaluatzeko jarduerak eta tresnak.
 - Zehaztu da zer-nolako lotura duten ebaluatzeko jarduerak eta tresnak ebaluazio irizpideekin eta kasuan kasuko moduluari dagozkion helburuekin.
 - Proposatutako metodologia berritzailea da eta bat dator hezkuntza-mailarekin.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

-Jarduerak:

- Jarduerak motibagarriak dira eta zailtasun maila bat baino gehiago dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeko.
- Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.
- Lanbide Heziketarako unitate didaktikoaren kasuan:
 - Ebaluatzeko sistemen jarduerak eta ebaluazio tresnak koherenteak dira, eta lotuta daude ebaluazio irizpideekin eta ikaskuntzaren emaitzen/amaierako gaitasunen lorpenarekin, metodologia berriak aplikatuz.
- Araubide bereziko kirol irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Ebaluatzeko sistemen jarduerak eta ebaluazio tresnak koherenteak dira, eta lotuta daude ebaluazio irizpideekin eta kirol ikaskuntzako moduluaren helburuen lorpenarekin, metodologia berriak aplikatuz.
- Musikako goi mailako irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Jarduerak koherenteak dira helburuekin eta askotariko metodologia aplikatzen da, eta espezialitatearen profil profesionala eskala txikian lantzen dute.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Ebaluatzeko sistemen jarduerak eta ebaluazio tresnak koherenteak dira, eta lotuta daude ebaluazio irizpideekin eta prestakuntza moduluaren helburuen lorpenarekin, metodologia berriak aplikatuz.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazioa:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko unitate didaktikoaren kasuan:
 - Ebaluazio irizpideak bat datoz helburuekin, konpetentziekin (funtsezkoak eta espezifikoak), deskriptore operatiboekin, oinarrizko jakintzekin eta aplikatu beharreko metodo pedagogikoekin.
 - Prozedurek, ebaluazio tresnek eta kalifikazio irizpideek adierazten dute zer-nolako jardun-maila espero den ikasleen partetik, eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan, zer-nolako ekarpena egingen dioten ikasleen irteera profilarari.
 - Helburuak lortu edo konpetentziak eskuratu ez dituzten ikasleei zuzendutako neurriak zehaztu dira.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- Lanbide Heziketarako unitate didaktikoaren kasuan:
 - Unitate didaktikoan lantzen diren ikaskuntzaren emaitzak/amaierako gaitasunak eta ebaluazio irizpideak ezarri dira.
 - Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak zehaztu dira, Nafarroako hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketa ebaluatzekeo indarrean den araudiarekin bat.
- Araubide bereziko kirol irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Unitate didaktikoan lantzen diren kirol irakaskuntzako moduluaren helburuak eta ebaluazio irizpideak ezarri dira.
 - Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak zehaztu dira, Nafarroan araubide bereziko kirol irakaskuntzak ebaluatzekeo indarrean den araudiarekin bat.

PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- Musikako goi mailako irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Ebaluazio irizpideak bat datoz helburuekin eta edukiekin, bai eta deialdia argitaratzen denean Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Musikako goi mailako irakaskuntzetarako indarrean dagoen araudiarekin ere. Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak ezarri dira.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzen unitate didaktikoaren kasuan:
 - Unitate didaktikoan lantzen diren prestakuntza moduluaren helburuak eta ebaluazio irizpideak ezarri dira.
 - Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak zehaztu dira, Nafarroan Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzak ebaluatzeko indarrean den araudiarekin bat.

NONDIK HASI?

Frogaren deskribapena nahiko lausoa da: “Unitate didaktikoak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko bat hartu beharko du testuinguru gisa, eta honako alderdi hauek zehaztuko dira hartan: unitate horrekin lortu nahi diren ikaskuntza helburuak, edukiak, ikasgelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak eta ebaluazio prozedurak, hori guztia ebazpen honen V. eranskinen azaldutako balorazio irizpideekin bat”.

NONDIK HASI?

Beraz, V. eranskinari erreparatuko diogu gure unitatea diseinatzeko.

-Alderdi orokorrak:

- Unitate didaktikoa **justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.**

Praktikan zer? Programazio didaktikoa buruan izan behar dugu. Hau da, 10 unitate didaktikoz osatutako programazio batean gurea zenbagarrena da? non kokatzen da ikasturtean? zeinen segida da? Zein curriculumen arabera osatu da? Zein ikastalderi zuzenduta dago? Nolakoa da ikastaldea? Zein ikastetxetan, herritan kokatua dago?

NONDIK HASI?

- Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.

Praktikan zer? Ahoz defendatuko badugu ere (2 orrialdeko gidoi bat izan dezakegu), txantiloï batean araberako unitate didaktikoa diseinatu eta defendatu beharko genuke.

- Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.
Praktikan zer? ahozko aurkezpena prestatu eta entseatu behar dugu.

NONDIK HASI?

Helburuak, edukiak eta metodologia:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko unitate didaktikoaren kasuan:
 - Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira: ikaskuntza helburuak, **konpetentziak** (funtsezkoak eta espezifikoak), oinarrizko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak eta **ebaluazio irizpideak**, ikaskuntza egoerak eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, **irteera-profila**.

Praktikan zer? curriculum elementuak 71/2022 Foru dekretuari dagozkionak dira. Beraz, lehenetsitako unitate ereduak ikas-egoerei dagokio.

NONDIK HASI?

- Zehaztu da zer-nolako lotura duten oinarrizko jakintzek konpetentzia funtsezkoak eta espezifikoak garatzeari begira, bai eta konpetentziek deskriptore operatiboekin duten lotura ere.

Praktikan zer? curriculumeko logika ongi barneratu eta azaldu behar dugu. Ez da nahiko jasotako curriculum elementuak aipatzearekin.

- Metodo pedagogikoak bat datoz ikasleen ezaugarriekin.

Praktikan zer? konpetentzietan oinarritutako metodologia bat azalduko dugu. Ikas-egoerak garatzearekin bat datorren metodologia alegia.

NONDIK HASI?

-Jarduerak:

- Jarduerak motibagarriak dira eta zailtasun maila bat baino gehiago dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeke.

Praktikan zer? ikasleei begirako jarduerak sortu behar ditugu eta ikasleen aniztasuna kontuan hartu behar dugu. IDU kontzeptua.

- Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.

Praktikan zer? jarduera horiek garatzeko askotariko materialak eta baliabideak (papera, digitalak, manipulatioak..) eta egokiak (IDU) planteatu eta zehaztu beharko ditugu.

NONDIK HASI?

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko unitate didaktikoaren kasuan:
 - Ebaluazio irizpideak bat datoz helburuekin, konpetentziekin (funtsezkoak eta espezifikoak), deskriptore operatiboekin, oinarrizko jakintzekin eta aplikatu beharreko metodo pedagogikoekin.

Praktikan zer? ebaluazio irizpideak gure erreferentea izango dira unitate didaktikoa osatzerakoan. Eta ebaluazioaren “logika” ongi ezagutu behar dugu.

NONDIK HASI?

- Prozedurek, ebaluazio tresnek eta kalifikazio irizpideek adierazten dute zer-nolako jardun-maila espero den ikasleen partetik, eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan, zer-nolako ekarpena egingen dioten ikasleen irteera profilarari. Praktikan zer? jardun mailaren kontzeptua ongi ezagutu behar dugu. Nola iritsiko gara horretara? ebaluazio planteamendu bat egon behar da atzetik? Nork, noiz, nola, zer, zertarako galderen erantzunak izan behar ditu.

NONDIK HASI?

- Helburuak lortu edo konpetentziak eskuratu ez dituzten ikasleei zuzendutako neurriak zehaztu dira.

Praktikan zer? gure ikasleen errealitatea islatu behar dugu. Nola erantzungo diogu konpetentziak eskuratzen ez dituzten ikasleekin? Zabaltze, indartze, berreskuratze neurriak definitu beharko ditugu.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN

BIRJARTZE OPOSAKETAKO DEIALDIAN JASOTAKOA HARTUKO DUGU ABIAPUNTU

- Ikaskuntzaren helburuak.
- Konpetentzia espezifikoak.
- Oinarrizko jakintzak.
- Irakaskuntza jardueren sekuentzia.
- Hedatu beharreko ikaskuntza egoerak.
- Ebaluazio prozedurak eta irizpideak.
- Deskribatzaile operatiboak.
- Metodo pedagogikoak, estrategiak eta espazioen eta denboren antolamendua, materialak eta baliabideak.
- Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako arreta.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: IKASKUNTZAREN HELBURUAK

Ikaskuntzaren Helburuak aipatzen denean zertaz ari gara?

Unitate honetan lortu nahi ditugun helburu lorgarri eta ebaluagarriez ari gara.

Ikus dezagun adibide bat:

https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/ikas_egoerak/docs/oinarrizkoa/lh/LH_3zik_patioaren_eraldaketa.pdf

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: ARGUDIAKETA CURRICULARRA

Argudiaketa curricularrean gure ikas egoerarekin landuko ditugun Funtsezko konpetentziak, haiei lotutako deskriptore operatiboak, konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio irizpeak eta oinarrizko jakintzak bilduko ditugu.

Ikus dezagun adibide bat:

<https://docs.google.com/document/d/1Sy8tUhqS2CdkQfDfHzVRd5Rm18n11STkXFDK689GmrA/edit?usp=sharing>

Txantilo horretan deskriptore operatiboak gehitu beharko genituzke.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: IRAKASKUNTZA JARDUEREN SEKUENTZIA

Lehenik eta behin kontzeptuak argitzea komeni da:

Jarduera/Ataza/Ariketa

Ariketa: Testuingurutik kanpoko ekintza, ez da bizitza errealari buruzkoa, eta ikasleek mekanikoki egiten dute errepikapenaren eta memorizazioaren bidez.

Jarduera: Ulermenetik eta erabakiak hartzetik abiatuta (arazoa ebazteko egin beharreko eragiketa hautatzea), prozesu mental erraza behar duen ekintza.

Ataza: ¹konpetentziak praktikan jartzeko eskatzen du; izan ere, zerbait ekoiztu behar da, praktika sozial batean txertatzen dena.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: IRAKASKUNTZA JARDUEREN SEKUENTZIA

Jarduerak/atazak ordenatu behar dira ikas-egoerari erantzuten joateko. Logika baten barnean.

Hiru fase desberdinduko ditugu:

1. Hasierako fasea
2. Garapen fasea
3. Amaierako fasea

Baina, fase gehiago ere erantzi daitezke nahi badugu. Komunikazio fasea esaterako.

Azter dezagun bakoitza bere jardueren/atazen ezaugarrien arabera.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: IRAKASKUNTZA JARDUEREN SEKUENTZIA

Hasierako fasea

Fase honetako ataza motak:

- Ikasleen parte-hartzea eta motibazioa sustatzeko ataza: aurretiazko ezagutzak identifikatzea, interesekin lotzea eta jakinmina eta ikasteko gogoia eragiten dituztenak.
- Proposamenaren aurkezteko atazak: helburua, zereginen ibilbidea, portfolioa edo ikasteko egunerokoa eta Ikas-egoeraren ebaluazio-irizpideak ikasleekin partekatzeko direnak.
- Ikaslegoaren antolatzeak: lantaldeak sortzea eta rolak eta funtzioak banatzeko helburua dituztenak,
- Metakognizioa sustatzeko atazak: hasierako fase honetan landutakoa barneratuta dagoela egiaztatzekeo baliagarriak direnak.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: IRAKASKUNTZA JARDUEREN SEKUENTZIA

Garapen fasea

Fase honetako ataza motak:

- Informazio berria aurkitzeko, antolatzeko eta ulertzeko atazak: Ikerketa gidatuak (iturrien fidagarritasuna baieztatzeko laguntzarekin), antolatzaile grafikoak, ulermen ariketak, etab.
- Ikasitakoa erabiltzeko atazak: irakaslearen laguntzarekin, liburu baten gidarekin, bideo-tutorial batean agertzen diren prozeduraz jarraituz, etab.
- Sintesia, abstrakzioa eta hausnarketa bultzatzen dituzten atazak: ereduak lantzen edo gogora ekartzeko balio dituztenak eta erlazionatzeko konparatzeko, sailkatzeko, mailakatzeko, sekuentziatzeko praktikak proposatzen: galderen bitartez metakognizioa gidatzen dutenak (ikasketa-koadernoak) eta lan-taldeen funtzionamenduari buruzko informazioa eskaini eta hobekuntzak bilatzeko garatzen direnak.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: IRAKASKUNTZA JARDUEREN SEKUENTZIA

Amaierako fasea

Fase honetako ataza motak:

- Amaierako ekoizpena gauzatzeko atazak garatzen dira: ekoizpenerako beharrezkoak direnentzako saio batzuk gorde dira.
- Amaierako ekoizpena zabaltzeko atazak.
- Hausnarketarako eta ebaluaziorako atazak: galderen bitartez metakognizioa gidatzen dutenak (ikasketa-koadernoak) eta lan-taldeen funtzionamenduari buruzko informazioa eskaintzen dituztenak

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: GARATU BEHARREKO IKAS-EGOERAK

Garatu beharreko ikas-egoerari ekin aurretik, komeni da ikas-egoera kontzeptuari buruz pixka bat hausnartzea.

Hau da, zer dira ikas-egoerak?

<https://sites.google.com/educacion.navarra.es/curriculos-de-navarra-eu/baliabideak/baliabideak-ikaskuntza-egoerak?authuser=0>

Baliabide hau ere lagungarria da ikas-egoera bat zer den (eta zer ez den definitzeko):

<https://curriculum.euskadi.eus/eu/gidak>

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: GARATU BEHARREKO IKAS-EGOERAK

Zer egitura eduki behar du garatu beharreko ikas-egoeraren azalpenak:

-Ikaskuntza egoera baterako elementuak:

- Sarrera: testuingurua eta egoeraren helburua.
- Deskribapena (nola gauzatuko den): jarduerak, metodologia, ebaluazio tresnak, etab.
- Amaierako produktua.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN:EBALUAZIO PROZEDURAK ETA IRIZPIDEAK

Ebaluazioaz ari garenean, oso argi eduki behar dugu zein den gure ebaluazio planteamendua.

Hau da, zertarako, zer, nork, noiz eta nola galderen erantzuna.

Dokumentu hauek puntu horiek ongi azaltzen dituzte:

<https://drive.google.com/file/d/1DGMHbyj6qeAfuesWYfkipyaYAnHpmJ3d/view>

<https://sites.google.com/koldomitxelena.net/kmkurrikuluma/orri-nagusia>

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: EBALUAZIO PROZEDURAK ETA IRIZPIDEAK

Zer dio curriculumak ebaluazioari buruz?

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5954950#13.%20artikulu>

Eta ebaluazioari buruzko aginduak?

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5956129#5.%20artikulu>

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: EBALUAZIO PROZEDURAK ETA IRIZPIDEAK

Zer jaso ikas-egoeran?

Ikus dezagun adibide bat:

<https://steilas.eus/wp-content/uploads/2023/01/ROBOTEN-ANTZERAK-LH-1.-ZIKLOA.pdf>

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: METODO PEDAGOGIKOAK, ESTRATEGIAK ETA ESPAZIOEN ETA DENBOREN ANTOLAMENDUA, MATERIALAK ETA BALIABIDEAK.

Sortutako ikas-egoera metodologia aktiboetan oinarrituta egotea hobesten da. Metodologia hauetan, ikasleak dira protagonistak eta modu aktiboan parte hartzen dute beren ikaskuntza-prozesuan. Beraz, horrelako metodologiak erabiltzeak ikasleak ahalduentzako aukera ematen du, ikaslea ikaskuntzaren erdigunean jarritz.

Bestalde, metodologia aktiboen ezaugarri nagusietako bat talde-lana da (ikasketa kooperatiboa, talde eragileak...). Izan ere, ikasleek elkarrekin lan egin behar dute helburu bera lortzeko.

Beraz, metodologia aktibo bat aukeratu eta azaldu behar dugu.

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: METODO PEDAGOGIKOAK, ESTRATEGIAK ETA ESPAZIOEN ETA DENBOREN ANTOLAMENDUA, MATERIALAK ETA BALIABIDEAK.

Ikasleak, irakasleak eta espazioak antolatzeko modua adieraztea.

Ikasleak taldekatzea:

- Banaka
- Bikoteka
- Talde txikitan
- Ikasgela-taldea
- Talde homogeneoak
- Talde heterogeneoak
- Talde interaktiboak
- Talde malguak
- Bestelakoak

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: METODO PEDAGOGIKOAK, ESTRATEGIAK ETA
ESPAZIOEN ETA DENBOREN ANTOLAMENDUA, MATERIALAK ETA BALIABIDEAK.

Esazioaren antolaketa:

- Ikasgela
- IKT ikasgela
- Laborategia
- Liburutegia
- Patioa
- Ikus-entzunezkoen gela
- Inguruneko espazioak (plaza, parkea, frontoia, etab.)
- Museoak
- Sormen GLab
- Bestelakoak

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: METODO PEDAGOGIKOAK, ESTRATEGIAK ETA
ESPAZIOEN ETA DENBOREN ANTOLAMENDUA, MATERIALAK ETA BALIABIDEAK.

Irakasleak antolatzea:

- Eskuartzeak eta eginkizunak
- Koordinazioa
- Ko-irakaskuntza

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: METODO PEDAGOGIKOAK, ESTRATEGIAK ETA ESPAZIOEN ETA DENBOREN ANTOLAMENDUA, MATERIALAK ETA BALIABIDEAK.

Baliabideak

Beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak adieraztea.

Ohikoak:

- digitalak
- grafikoak eta ikonikoak
- web-baliabideak
- ikus-entzunezkoak
- errealitate birtuala
- adimen artifiziala
- Bestelakoak:

Ez-ohikoak, kanpokoak:

- Erakundeak
- Museoak
- Adituak
- Urruneko laborategiak
- Ikerketa-zentroak
- Enpresak
- Bestelakoak

TXANTILOI BAT DEFINITZEN: KONPETENTZIAK ESKURATU EZ DITUZTEN IKASLEEI. ANIZTASUNA

Zer jarduera eramango ditugu aurrera konpetentzien eskurapen prozesuan arazoak dituzten ikasleekin?

Nola erantzungo diogu IDU printzipioei?

Nola egokituko gara gure ikasgelako aniztasunari? Premia berezien kasuan?

Hona zenbait baliabide:

<https://sites.google.com/site/orientasare/aniztasuna/idu>

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2023/196/0>

TXANTILOIA DEFINITZEN: ELEMENTUEN ORDENA

Aurkeztu berri ditugun aholkuak, deialdian agertzen diren ordenaren araberrakoak dira. Baina, ez dugu zertan horrela jaso behar.

Proposamen bat:

Izenburua (erakargarria, motibagarria), Ikas-egoeraren azalpena, argudiaketa curricularra, Jardueren sekuentzia, Metodologia, Ebaluazioa eta Aniztasunari arreta.

UNITATEA AZALTZEN / DEFENDATZEN

Egonkortze oposaketaren kasuan berriz:

Probaren zati honen prestaketa, aurkezpena, azalpena eta defentsa ahozkoak izanen dira, eta honela egingen da:

a) Izangaiek epaimahaiaren aurrean aurkeztu, azaldu eta defendatu beharko dute unitate didaktikoa, eta hori prestatzeko, aurrez, 20 minutu izanen dituzte.

b) Ondoren, 45 minutu izanen dituzte unitate didaktikoa epaimahaiaren aurrean ahoz aurkeztu, azaldu eta defendatzeko.

Unitate didaktikoa prestatu, azaldu eta defendatzeko, izangaiek egoki jotzen duten material osagarria erabiltzen ahalko dute, eta haiek eraman beharko dute material hori. Halaber, unitate didaktikoaren azalpenean eta defentsan, gidoi bat erabiltzen ahalko dute, gehienez ere bi orrialdekoa; azalpena amaitutakoan, epaimahaiari eman beharko diote.

c) Epaimahaiaren aurreko ahozko azalpena bukatutakoan, epaimahaiak beharrezko jotzen dituen auzi edo galderak planteatzen ahalko dizkio izangaiari, unitate didaktikoari eta izangaiek azaldutako edukiei loturik, betiere; eztabaida hori 15 minutukoa izanen da gehienez.

UNITATEA AZALTZEN / DEFENDATZEN

- Gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntza aritzeko tresnak zenbateraino menperatzen ditugun azaltzeko
- Komeni da tesutingurua ezartzea: zein lege eta agindu erabili ditugun, zenbagarren mailan kokatzen dugu, herria? ikastetxea? zein ikasleri zuzendua dagoen (taldearen deskribapena).
- Bi kasuetan, sarrera bat egin azalduko duzuen adieraziz.
- Unitatea urteko programazio baten testuinguruan kokatu. aurretik zer, ondoren zer?
- Ikas-egoeraren nondik-norakoak azaldu. Horrekin batera, helburu didaktikoak eta azken xedea.

UNITATEA AZALTZEN / DEFENDATZEN

- Argudiaketa curricularra egin. Zein curriculum elementu landuko dira unitatearen bidez.
- Jardueren sekuentzia azaldu, fase bakoitzaren zergatiak azalduz.
- Jardueren sekuentziarekin batera metodologia aipatu eta ebaluazio planteamendua.
- Aniztasunaren erantzuna azaldu.

UNITATEA AZALTZEN / DEFENDATZEN

- Aurkezpen hori egiteko, komeni da unitate bat idatziz garatzea, diseinu prozesua ongi ulertzeko.
- Unitate baten logika ulertuta, edozein unitate azaltzeko gai gara.
- Unitatea defendatzeko entseguak egitea komeni da. Denborak neurtzea oso garrantzitsua baita.
- Zein material gehigarri eraman? gure azalpenak zabaldu eta irudikatzeke baliagarria: ebaluazio tresnak eta erremintak, IDU material desberdinak.
- Baliabide digitalak erabili? aukerakoa.